



# Unitate Didaktikoa

Ikasgai kurrikularretan aplikatzekoa

ZERUERTZ. HEZKUNTA ETA SENTSIBILIZAZIO INTERKULTURALA DBHKO IKASLEENTZAT

## Musika

01. Datu orokorrak
02. Funtsezko konpetentziak, konpetentzia espezifikoak, ebaluazio irizpideak eta oinarrizko jakintzak.
03. Jardueraren deskribapena
04. Baliabideak eta materialak



ZERUERTZ



# Datu orokorrak

**TITULUA:** Musika munduan: pertsona migratuen ahotsak

**ETAPA:** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

**ZIKLOA:** 3. zikloa

**DENBORALIZAZIOA:** Jarduera hau egiteko, ikasgelan 2 lan-saio egin behar direla uste da (1. Zereginaren sarrera eta prestaketa; 2. Bateratze-lana eta talde-hausnarketa). Horri gehitu beharko zaio ikasgelatik kanpo elkarrizketa planifikatu eta egiteko behar den denbora, ikasleek beraiek balioetsitako premien arabera zehaztuko dena.

Jarduera hau ikasturtean zehar egin daiteke, gai horri esleitutako beste zeregin batzuekin batera.

## JARDUERAREN DESKRIBAPENA ETA EDUKIAK

- Hainbat herrialdetako musika-genero eta -estiloak aztertzea.
- Migratutako pertsonen elkarrizketak egitea beren jatorrizko herrialdeetako musikari buruz.
- Kultura desberdinetan dagoen musikaren arteko antzekotasun eta desberdintasunei buruzko hausnarketa.

## HELBURUAK

- Hainbat herrialde eta kulturatako musika ezagutzea eta balioestea.
- Migratutako pertsona bati elkarrizketa bat egitea bere jatorrizko herrialdeko musika aztertzeko.
- Migratuekiko eta haien kulturekiko enpatia sustatzea.
- Komunitateetako kultura-aniztasunaren funtsari eta horrek identitate kolektiboan duen eraginari buruz hausnartzea.

ZERUERTZ



# Funtsezko konpetentziak, konpetentzia espezifikoak, ebaluazio irizpideak eta oinarrizko jakintzak

## FUNTSEZKO KONPETENTZIAK

- Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentzia (HKK)
- Konpetentzia Pertsonala, Soziala eta Ikasten Ikastekoa (KPSII)
- Konpetentzia Digitala (KD)
- Herritar Konpetentzia (HK)
- Ekimenerako Konpetentzia (EK)
- Kulturaren Kontzientzia eta Adierazpenerako Konpetentzia (KKAK)

## KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

**1.KONP.ESP.:** Hainbat garai eta kulturatako lanak aztertzea, haien ezaugarri estilistiko nagusiak identifikatu eta testuinguruarekin erlazioak ezartzea, musika- eta dantza-ondarea gozamenerako eta norbera aberasteko bide gisa baloratzeko.

**1.1.EBALU.IRIZ.:** Hainbat garai eta kulturatako musika- eta dantza-lanen ezaugarri estilistiko nagusiak identifikatzea, eta horiek entzuteko edo ikusteko orduan jarrera irekia, interesa eta errespetua erakustea.

**1.2.EBALU.IRIZ.:** Musika- eta dantza-ekoizpen jakin batzuek betetzen dituzten funtzioak jarrera irekiarekin eta errespetuz azaltzea, eta haien testuinguru historiko, sozial eta kulturalaren ezaugarri nagusiekin erlazionatzea.

**1.3.EBALU.IRIZ.:** Hainbat garai eta kulturatako musika- eta dantza-adierazpenen arteko loturak ezartzea, eta egungo musikan eta dantzan duten eragina baloratzeko.

## OINARRIZKO JAKINTZAK

### A. ENTZUTEA ETA HAUTEMATEA

**A.1.** Isiltasuna, soinua, zarata eta entzute aktiboa. Soinu-kutsadurarekiko sentsibiltatea eta entzuteko giro osasungarriak sortzea.

**A.2.** Musika- eta dantza-lanak: haien oinarritzko ezaugarriak aztertzea, deskribatzea eta baloratzeko. Musikaren eta dantzaren generoak.

- A.4. Nazioarteko, nazioko, eskualdeko eta tokiko konpositoreak, artistak eta interpreteak.
- A.6. Musikaren eta dantzaren bidez transmititutako mitoak, genero-estereotipoak eta genero-rolak.
- A.8. Informazio fidagarria, egokia eta kalitatezkoa bilatzeko, hautatzeko eta berriz lantzeko estrategiak.
- A.9. Musika jasotzeko oinarritzko jokabide-arauak: errespetua eta balorazioa.

#### B. INTERPRETAZIOA, INPROBISAZIOA ETA SORKUNTZA ESZENIKOA

- B.3. Kultura ondarearen genero musikal eta eszeniko nagusiak.
- B.4. Norberaren eta beste kultura batzuen musika-ondareko hainbat musika-motaren ahozko errepertorioa, instrumentala edo gorputzekoa, banakakoa edo taldekoa.

#### C. TESTUINGURUAK ETA KULTURAK

- C.2. Musika tradizionalak Espainian eta haien kultura aniztasuna. Tresnak, abestiak eta dantzak.
- C.3. Munduko beste kultura batzuetako musika- eta dantza-tradizioak.
- C.4. Herri musikak, hiritarrak eta garaikideak.

ZERUERTZ



# Jardueraren deskribapena

## 1. FASEA. SARRERA (IRAKASLEEN ALDETIK)

Migrazioaren gaia aurkeztea, ikasleak motibatzea kultura-aniztasunaren garrantziaz eta horrek musikan duen eraginaz hausnartzera.

- Horretarako, irakasleak *DBHko ikasleekin kulturartean hezteko eta sensibilizatzeko gida didaktikoan* oinarritu ahal izango dira ezagutza transferitzeko. Gida hori Zeruertz-eko taldeak egin zuen, ele bitan (gaztelaniaz eta euskaraz), 2022ko edizioan.

## 2. FASEA. IKASLEAK ELKARRIZKETARAKO PRESTATZEA

Fase honetan, irakasleek egin beharreko jarduera sartu beharko diete ikasleei; hau da, elkarrizketa bat egin beharko diete migratutako pertsonari. Ikasleek inguruko pertsona migratu bat elkarrizketatu beharko dute, guri dagokigun gaiari buruz, musikari buruz, alegia.

Elkarrizketa prestatzeko eta munduko herrialde guztietan dagoen kultura-aniztasunari buruzko testuinguru teoriko bat sortzeko, ikasleek ikertu egin beharko dute zer genero, tresna eta berezitasun dituen musikak herrialde guztietan, oro har, eta elkarrizketatutako pertsona migratuaren jatorrizko herrialdean, bereziki. Ekintza horrek aukera emango dio ikasleari irekitasun-posizio batean jartzeko, jakin-min-egoera bat sustatzeko, hurrengo zeregina errazteko, hau da, elkarrizketan adierazitako galderak egiteko.

## 3. FASEA. ELKARRIZKETA PERSONA MIGRATU BATI

Eskuratutako ezagutzatik abiatuta, ikasleek galdera-gidoi bat prestatu beharko dute elkarrizketa zuzentzeko. Aurkezpenaz, migratutako pertsonaren sarrera gisa, eta agurrez gain, elkarrizketatuari egindako ekarpena eskertzeko, musikaren inguruko galderak izango dira elkarrizketaren atalean.

Ondoren, elkarrizketa hau egiteko laguntza eta adibide gisa, galderen zerrenda bat eskaintzen da [1. eranskinean](#), ikasleek, edozein ikasturtetan daudela ere, beren interesa eta lehentasuna kontuan hartuta, elkarrizketa gidatzeko orientabide bat aukeratu ahal izan dezaten.

#### 4. FASEA. ELKARRIZKETEN AURKEZPENA ETA HAUSNARKETA-EZTABAIDA IKASGELAN

Elkarrizketa egin ondoren, interesgarria izan liteke ikasgelan espazio bat bilatzea, esperientzia horien trukea eta ikasleen arteko elkarrizketen ondoriozko pertzepzioak sustatzeko. Horretarako, ebaluazio-modu gisa proposatzen da bai elkarrizketaren aurkezpena, bai hortik eratorritako esperientzia.

Era berean, ikasleen azalpenaren ondoren, taldekako eztabaida bat sustatuko da kulturartekotasunari eta musikari buruz, bai eta jarduera hori egiteak ikasleengan izan duen eraginari buruz ere.

ZERUERTZ



# Baliabideak eta materialak

## BEHARREZKO BALIAKIDEAK

- Interneterako sarbidea eta ikerketa-materiala (irakasleek baloratu beharrekoa).
- Elkarriketak grabatzeko gailu elektronikoa, beharrezkoa bada, ondorengo aurkezpen-lana errazteko.

## IRAKASLEENTZAKO MATERIAL GEHIGARRIAK

- [Aula Intercultural](#)
- [Ministerio de Educación y Formación Profesional](#)

ZERUERTZ



# 1. eranskina. Eredugaldere zerrenda

1. Zein da garrantzitsua musika zure kulturaren eta zure jatorrizko herrialdeko eguneroko bizitzan?
2. Ba al dago zure herrialdean musika-tresna tradizional edo tipikorik? Kontatuko zenidake berari buruz?
3. Parte hartu al duzu zure herrialdean musika-talde edo bandetan? Kontatuko zenidake nolako izan zen esperientzia hori?
4. Izan al duzu aukerarik zure herrialdeko musika hemengo pertsonarekin partekatzeke? Nolakoak izan dira esperientzia horiek?
5. Ba al dago zuretzat garrantzitsua den eta zure herria gogorarazten dizun abestirik? Erakutsiko zenidake?
6. Nola eragin du zure migrazio-esperientziak musikarekin duzun harremanean?
7. Migrazio-prozesuaren ondoren, nabaritu al duzu aldaketarik zure musika-ikuspegian edo -estiloan?
8. Musika genero berriak aurkitu al dituzu beste herrialde batera bizitzera joan zarenean? Zeintzuk eman dizute atenezioa?
9. Zer eginkizun izan du musikak ingurune berri horretara egokitzeko prozesuan zuri laguntzeko?
10. Antzeman al duzu desberdintasun esanguratsurik zure jatorrizko herrialdeko musika herrialde honetakoarekin alderatuta nola hautematen eta bizitzen den jakiteko?
11. Loturarik aurkitu al duzu zure jatorrizko kulturako musikaren eta herri honetakoaren artean?
12. Uste duzu musika oztoko linguistikoak edo kulturalak gainditzeko modu bat izan dela hona iritsi zinenetik?
13. Ba al dago zure migrazio-prozesua bereziki gogorarazten dizun edo zure maiteengandik edo sustraiaetatik urrun egotearen nostalgia edo tristura jasaten lagunduko dizun abestirik?
14. Zer bilakaera izan du musikaren bidez zure kultura-nortasunarekin duzun harremanak?
15. Aurkitu al duzu musikarekin lotutako kultura-talkarik inguru honetan zure bizitza berrira egokitzeko prozesuan?

ZERUERTZ

